



EBAZPENA (05/2009 SINTRABI espedientea)

Osokoa

Javier Berasategi Torices jn., presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jn., presidenteordea

Juan Luis Crucelegui Garate jn., kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jn., idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 12an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (LDEA) Osokoak, goian adierazitako osaerarekin eta txostengilea Juan Luis Crucelegui Garate jn. dela, honako ebazpena eman du 05/2009 espedientean. Espediente horrek, hain zuzen ere, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) LDEAk eskatuta Bizkaiko Garraiolari Autonomoen Sindikatu Probintzialaren (SINTRABI) aurka Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak (LDL) debekatutako jokabideak egiteagatik hasitako isilpeko ikerketa batean du jatorria.

GERTAKARIAK

1. 2007ko abenduaren 4an, sarrera izan zuen Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren erregistroan LDEAk igorritako idazki batek, eta horren bidez, Lehiaren Defentsarako Legeak debekatutako ustezko jokabide batzuk jakinarazten ziren, BIZKAIKO GARRAIOLARI AUTONOMOEN SINDIKATU PROBINTZIALAK (SINTRABI) eginak.

2. Idazki horretan, bereziki, honako hau adierazten zen:

“Aho batez erabakitzen da LDEZi jakinaraztea ikerketa bat ireki dela, SINTRABI garraiolari-elkarteak ustez egindako honako jokabide hauen inguruan, Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearekin bateraezinak izan daitezkeelakoan:



A. 10 "lizentzia"ren zozketa, inolako lege-babesik gabea, Bilboko portuan salgaien garraioko zerbitzuak egin ahal izateko, akordio honi 1. eranskin gisa atxikita doan prentsa-artikuluari ageri denez.

B. Prezioak gehitzeko gomendioa, elkartekideei zuzendua, prentsa-ohar baten ageri denez. Ohar horrek honako hau dio, hitzez hitz: *"Desde SINTRABI recomendamos a los transportistas que actualicen a primeros de año las tarifas del transporte en función de las variaciones del precio del gasóleo, para que no se produzcan pérdidas de poder adquisitivo para los transportistas y su familias, y en este caso por circunstancias totalmente ajenas a su actividad, como es la subida del petróleo en mercados internacionales"*.

Kontuan izanda Auzitegi Nazionala prozesu penal bat instruitzen ari dela SINTRABIren eta Bilboko portuan jarduten duten beste enpresa batzuen ordezkarien aurka, agindei honen gai den jokabide guztien edo batzuekin lotura izan dezaketen jokabide batzuk direla eta, LDEZk beharrezkotzat jo dezake Auzitegi Nazionalaren iritzia jasotzea prozedura eteteari edo ez eteteari buruz, 15/2007 Legearen 46. artikulua arabera.

3. Abenduaren 5ean, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan xedatutakoa betez, LDEZk gaiari buruzko ohar labur bat igorri zion Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ikerketa Zuzendaritzari (LBNren IZri), bai eta ikerketaren hasierari oinarri eman zioten agirien kopia ere.
4. 2008ko otsailaren 12an, euskal instrukzio-organoaren (LDEZ) eta estatukoaren (LBNren IZ) arteko gutun-truke baten ondoren, hau da, lehia murrizten duten jokabide bi horiek, LDEZk antzemanak, ikertzeaz eta instruitzeaz arduratuko den organoaren eskumena zehaztera zuzendutako gutun-trukearen ondoren, LBNren IZk, une hartan zeuden gorabeheren eta agirien arabera, honako hau erabaki zuen: Bilboko portuan jarduteko beharrezko lizentziak zozketatzeari buruzko jokabideengatiko espedientea ikertzeko eta izapidetzeko organo eskuduna estatukoa zela (LBNren IZ); garraioaren prezioak (B) gehitzeko gomendio kolektiboari buruzko jokabidea, berriz, euskal agintaritzak (LDEZ) instruitzekoa zela.



5. 2008ko otsailaren 25ean, Ekonomia eta Plangintza zuzendariaren ebazpen baten bidez, kasuan kasuko zehapen-espeditentea ireki zen, eta instrukzio-egilea eta idazkaria izendatu ziren.
6. 2008ko apirilaren 22ko probidentzia baten bidez erabaki zen Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 6. Epaitegi Zentralari informazioa eskatzea SINTRABIko zuzendarien aurka irekitako prozedura penalarari buruz, eta, era berean, erabaki zen administrazio-prozedura geldiaraztea, 2008ko apirilaren 23tik aurrera, eta prozeduraren iraupeneko gehieneko epea etetea, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 37. artikuluan eta otsailaren 22ko 261/2008 Errege-Dekretuaren bidez onartutako Lehiaren Defentsarako Araudiaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.
7. 2008ko urriaren 2ko probidentzia baten bidez, LDEZk prozeduraren geldiaraztea kentzea erabaki zuen, Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 6. Epaitegi Zentralaren aldetik SINTRABIko zenbait zuzendariaren aurka jarraitutako jardueren largespeneko autoa eta artxibatzea jaso ondoren.
8. 2009ko martxoaren 11n, LBNren IZk idatzi bat igorri zion LDEZi, eta han adierazten zuen Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 8. Epaitegi Zentralaren 2008ko abuztuaren 27ko autoaren berri izan zuela, eta hori dela eta, Ertzaintzak egindako txostenen lekukotza igorri zien, bidezko ondorioetarako. Era berean, baieztatzen zuen ezen, Auzitegi Nazionalak igorritako agiriak aztertuta, Ikerketa Zuzendaritza horren iritziz, nahikoa zantzu zeudela honako hau ondorioztatzeko: loturaren bat dagoela 15/2007 espeditente honen xede den BIZKAIKO GARRAIOLARI AUTONOMOEN SINDIKATUak (SINTRABI) egindako prezio-gehikuntzako gomendioaren eta S/0060/08 espeditentean IZ aztertzen ari zen 10 lizentziaren zozketaren artean, eta hori dela eta, irizten zion bi jokabideok bere osotasunean aztertuak izan behar zutela.

Aurrekoa ikusita, LBNren IZk ondorioztatzen du bere burua agintaritza eskuduntzat jotzen duela Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legean aitortutako eskumenak egikaritzeko, bai zozketari dagokionez (BIZKAIKO GARRAIOLARI AUTONOMOEN SINDIKATUaren aldetik (SINTRABI) 10 lizentzia zozkatu ziren Bilboko portuan salgaien garraioko zerbitzua egin ahal izateko), bai elkartekideei zuzendutako prezio-gehikuntzako gomendioari buruz.

9. 2009ko martxoaren 12an, LDEZk eskumen-galeragatik zehapen-espeditentea artxibatzeko proposamena jakinarazi zion LDEA, eta hor hau jasotzen zuen, hitzez hitz: *“De la información remitida por la Dirección de Investigación de la Comisión Nacional de la Competencia se deduce que las*



conductas objeto del presente expediente afectan a un ámbito superior al de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por lo que procede activar los mecanismos de asignación de competencia previstos en el artículo 2 de la Ley 1/2002, y remitir a la Comisión Nacional de la Competencia el expediente tramitado hasta este momento por este Servicio Vasco de Defensa de la Competencia, tal como prevé el citado artículo”.

10. Horren berri eman zitzaion Bizkaiko Garraiolari Autonomoen Sindikatu Probintzialari (SINTRABI).
11. Auzitegiak eztabaidatu zuen, eta 2009ko ekainaren 12an ebatzi zuen gai horri buruz.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

12. **LEHENA.**- Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 44. artikulua ezartzen du Lehiaren Batzorde Nazionalak (gure kasuan, lehiaren arloko euskal agintaritzak) prozedura batekin ez hastea edo hasitako jarduerak edo espedienteak artxibatzea erabakitzeko aukera izango duela, eskumenik edo objekturik izan ez edo eskumena edo objektua galduz gero.
13. **BIGARRENA.**- Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 1.1 artikuluan hauxe xedatzen du: “Estatuari egokituko zaio Lehiaren Defentsarako Legean aitortutako eskumenak egikaritzea, zenbait jokabidetarako prozedurei dagokienean, baldin eta aipatutako jokabide horiek lehia garbia autonomia-erkidegoez gaindi edo nazio-merkatu osoan itxuraldatzen badute edo itxuraldatzeko modukoak badira, bai eta dena delako eskumena autonomia-erkidegoetako edozeinetan erabiltzekoa bada ere.
14. **HIRUGARRENA.**- 1/2002 Legaren 2. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan aurreikusitakoa aplikatuta, LBNko Ikerketa zuzendariak beraren aplikaziokotzat irizten badio jakinarazitako jokabideari, espedientea igor dakion eskatu ahal izango du prozeduraren edozein unetan, are ebazpeneko aldiaren ere.



15. **LAUGARRENA.**- LDEZi igorritako 2009ko martxoaren 9ko idazkian, LBNren IZk honako hau adierazten du: Auzitegi Nazionaleko Instrukzioko 8. Epaitegi Zentralaren autoaren berri izan ondoren (haren bidez, behin-behineko largespena eta auzia artxibatzea erabaki zen, hain zuzen ere), 62/98 alde zuzeneko aurreko eginbideen prozeduraren esparruan, eta Auzitegi Nazionalak igorritako agiriak aztertuta, zuzendaritza horren iritziz, nahikoa zantzu daudela honako hau ondorioztatzeko: loturaren bat dagoela 15/2007 espediente honen esparruan Sintrabik bere elkartekideei egindako prezio-gehikuntzako gomendioaren eta S/0060/08 espedientearen esparruan LBNren IZ aztertzen ari den 10 lizentziaren zozketaren artean, eta hori dela eta, bi jokabideok bere osotasunean aztertuak izan behar dutela. Horren ondorioz, ordu arte egindako jarduera guztiak berari igortzea eskatzen du.
16. **BOSGARRENA.**- LDEZk SINTRABIren inguruan egindako jarduerak xedetzat dute garraiolari-elkarte horretako kideei zuzendutako gomendia aztertzeko, hau da, sindikatu profesional horren baitan garraioaren prezioek igoera paralelo bat izatera bideratutako gomendia zertan den aztertzeko, alegia. LBNren IZ aztertzen ari den jokabidea, berriz, beste gai bati dagokio: Bilboko portuan lan egin nahi luketen garraiolariarentzat SINTRABIk iragarri zuten hamar lizentzia berrien enkanteari edo zozketari, hain zuzen ere.
17. Nahiz eta hasiera batean pentsatu zen, lehiaren arloko agintaritzen aldetik, bi jokabideok ondorio desberdinak izan zitezaketela, dela ikuspuntu materialetik, dela geografikotik, eta horrexegatik erabaki zen jokabide horien izapidetzean estatuko agintaritzak zein euskal agintaritzak esku hartu behar zuela, Auzitegi Nazionalak jarraitutako prozedura penalean ageri diren jarduketak zuzendaritza honetara igorri ondoren, LBNren IZ honako ondorio honetara iritsi da: bi jokabideok hertsiko lotuta daude bata besteari, kontuan izanda portura sartzeko mugapena bi arrazoik eragin dutela, hau da, portu barruko salgaien garraioa jarduera kontrolatzeak ez ezik, Sintrabik gomendatutako tarifen aplikazioa eraginkor egiteak ere eragin du mugapen hori jartzea.
18. Ildo horretatik, ekarritako agiriak aztertu ondoren, LDEAren iritziz, bi jokabideok agintaritza bakar batean (ondoan kokatuan) izapidetzea, alde batetik, koherentea eta komenigarria izan da instrukzioaren ondorioetarako, baina bestetik, horrezaz gain, kontuan izan behar da bi jokabideen ondorioek gairitu egiten dituztela Euskal Autonomia Erkidegoaren mugaldeak, eta hori dela eta, beharrezko dela jarduketak Lehiaren Batzorde Nazionalari bidaltzea. Izan ere, portuan lan egiteko 10 lizentziaren zozketari buruzko jokabidea ere Bilboko portuko garraioaren arloko lehia eraginkorra murrizteko modukoa da eta merkatuan sartzeko oztopoa da, dena delako "lizentzia"rik ez daukan garraiolari guztiak merkatu horretatik baztertzen baititu, bakoitzaren jatorria edo bizilekua alde batera utzita. Lizentziak



banatzeko sistema horrek aukera ematen dio Sintrabiri portuan lan egiten duten garraiolarien kopurua kontrolatzeko ez ezik, aplikatzen dituzten tarifak kontrolatzeko ere. Ildo horretatik, Sintrabik tarifen prezioak igotzeko egin zuen gomendio kolektiboa ere lehenengo jokabidearen barruan sartuta geratuko litzateke eta jokabide horren azterketa ere beste haren esparruan egin beharko litzateke.

19. Azken batean, LDLren 44. artikuluan aurreikusitako kasuetako baten aurrean geundeke, LDEAk galdu egin baitu gai hori ebazteko eskumena, LBN baita eskuduna kasu horretan, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 1. artikulua aplikatuta. Horren ondorioz, LDEAk beharrezko irizten dio LDEZk prozedura horren esparruan orain arte egin dituen jarduerak LBNren IZri helarazteari, eta espedientea artxibatu egiten du.



Hori guztia dela-eta, aipaturiko manuak eta oro har aplikatu beharreko gainerako manuak ikusita, hona hemen Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiaren ebazpena.

EBATZI DU:

BAKARRA.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak 015/2007, Bizkaiko Garraiolari Autonomoen Sindikatu Probintziala (SINTRABI) zehapen-espeditentea eskumen-galeragatik artxibatzeko egindako proposamena baiestea, eta jatorrizko espeditentea Lehiaren Batzorde Nazionalari igortzea.

Jakinaraz bekio ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eta helaraz bekio Bizkaiko Garraiolari Autonomoen Sindikatu Probintzialari (SINTRABI). Jakinaraz bekio, orobat, administrazio-bidea amaitzen duela, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietarako salan; bi hilabeteko epea izango da horretarako, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 12an

PRESIDENTEA
JAVIER BERASATEGI TORICES

PRESIDENTEORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI